

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PERKUSIOA 2020ko MARTXOaren 13a

2020ko MARTXOaren 13an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **perkudio** espezialitatean. Bertan esku hartuko dute Antonio Domingo, Lorenzo Ferrándiz, Javi Azanza eta Jabi Alonso irakasleek, bai eta Musikeneko perkudio ikasleek ere.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten perkudio ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten perkudio ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Parte hartzaileei sarrera proba gainduz gero izango luketen ikasketa planari buruzko informazioa ematea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei sarrera proba egiteko argibideak ematea: egitura, baldintzak, obrak ongi hautatzearen garrantzia.
- Musikenen perkudio arloan egiten den hezkuntza lana erakustea.
- Parte hartzaileei proba gainditzeko helburuz interpretazioan zein alderdi hobetu behar duten adieraztea, beraiek proposatutako obrak entzunez.

Lan-egitasmoa

11.30. Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Perkudio espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

12.30-13.30: Bibrafono eskolak izena eman duten ikasle aktiboentzat Antonio Domingoren eskutik.

13.30-14.30: Marinba eskolak izena eman duten ikasle aktiboentzat Lorenzo Ferrándiz irakaslearen eskutik.

14.30-15.30: Bazkaltzeko etenaldia. Bertan gure ikasleek beraien esperientzia partekatuko dute datozen bisitariekin.

15.30-16.30: Javi Azanzak Tinbal eskolak emango dizkie izena eman duten ikasle aktiboak.

16.30-17.30: Jabi Alonso-ren kutxa eta multiperkudio eskolak izena eman duten ikasle aktiboentzat.

17.30: Musikeneko perkudio ensemblearen entzunaldia.

19.00: Jardunaldiaren amaiera

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkudio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus